



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## **Ariadna Martínez sopranoak eta Antonio Oyarzabal pianistak Julián Martínez de Villar konposatzailearen musika berreskuratuko dute**

- **Bihar asteartean, urriaren 27an, 19:30ean, “Lejos de Euskaria” errezitaldia emango dute Arriaga Antzokiko foyerrean, eta Karmele Larrinaga antzezleak errezitatzaile moduan hartuko du parte.**

**Bilbon, 2020ko urriaren 26an.** – Arriaga Antzokiak eta Bilboko Udaleko Euskara Sailak bultzatutako “Literatura eta Musika Euskaraz” zikloa itzuliko da beste denboraldi batez. Bihar asteartean, urriaren 27an, 19:30etik aurrera, Arriagako foyerrean izango den lehenengo hitzorduan, **Ariadna Martínez** sopranoak eta **Antonio Oyarzabal** pianistak **Julián Martínez de Villar** euskal konposatzailearen figura erreskatatuko dute. Bi artistek, biak ere Laudiokoak, erdi ahaztuta dagoen eta Laudiokoa zen konposatzailea berreskuratu gura izan dute.

Julián Martínez de Villar, pianista, konposatzaile, moldatzaile, zuzendari eta musika irakasleak lan emankorra egin zuen Euskal Herria eta Amerika artean berrogeita hamar urte baino gehiagoko etengabeko ibilbide profesionalean. Bere ibilbidea XIX. mendearen amaierako Bilboko testuinguruan hasi zen, bertatik Mexikora eta Estatu Batuetara joan zen, eta bertan finkatu zuen bere bizilekua 1944an hil zen arte. Dena den, musika genero tradizionalei eta klasikoei egin zien ekarpena ia guztiz ahaztuta geratu da bere herrian.

Duela denbora gutxi, Laudioko San Roke Kofradiak bere jaiotzaren 150. urteurrena (1870-2020) gogorarazteko bere figura eta legatua berreskuratzekeo egitasmoaren ondorioz, Antonio Oyarzabalek eta Ariadna Martínezek pianorako eta ahotserako idatzi zituen pieza eta moldaketa garrantzitsuenen aukeraketa argitaratu gabea grabatu dute diskoan. Arreta berezia eman diete euskal abesti herrikoia harmonizatzekeo egin zituen ekarpenei. Astearte honetan, “Lejos de Euskaria” izenburuarekin (bere zortzikoetako bati erreferentzia egiten dion izenburua), melodia horietako batzuk gertutik gozatu ahal izango ditugu, Arriagako foyerrekeo gertuko giro intimistan, errezitatzaile gisa arituko den **Karmele Larrinaga** antzezlearen lankidetzarekin.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)